# Xedapen Orokorrak

## HERRIZAINGO SAILA

### 2552

DEKRETUA,108/1996 maiatzaren 14koa, Herrizaingo Sailaren egitura organikoa ezartzen duena.

Orain arte indarrean egon den Herrizaingo Sailaren egitura organikoa uztailaren 17ko 217/1993ko Dekretuan ezarritakoa izan da.

Ordutik hona igaro den denboran Jaurlaritza Kontseiluak Administrazio Publikoaren Razionalizazio eta Hobekuntzarako Batzordearen Txostena onartu zuen 1994ko ekainaren 28an; baita Euskal Erkidegoko Administrazioko Sailak sortu, kendu edo aldatzeko den urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretua ere.

Bestalde, Herrizaingo Sailari dagokion iharduera-alorrean Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Iharduerak arautzen dituen azaroaren 10eko Legea eta Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legea onartu zituen Eusko Jaurlaritzak.

Arrazoi hauek uztailaren 17ko 217/1993 Dekretua berrikustera bultzatzen zuten; eta berrikuntza sakonik ez badago ere, zenbait aldaketa funtsezko, egon, egon dira, eta aipaturiko dekretuko zenbait aurrikuspen lege berri horiei egokitzen zaizkie.

Sailburuaren Kabineteari Zuzendaritza maila ematea da Sailburuaren menpe dauden organoekiko aldaketarik aipagarriena eta esanguratsuena. Aldaketa horrek berekin dakar, jakina, bere egitura sendotzea eta egokitzen zaizkion eginkizunak betetzeko bitarteko gehiagoz hornitu beharra aurrerantzean. Bien bitartean, Zerbitzu Zuzendaritza eta Lege Araubideko Zuzendaritza bere horretan mantenduko dira. Kabinetearen kasuan esperientziak erakutsi du Kabinetearen eginkizunek ez dutela izaera koiunturala, eta horregatik, saileko egituran organo gisa sartzeari komenigarri tzat jo da.

Bestalde, sailaren iharduera-alorrean funtsezko ardaztzat jotzen diren bi sailburuordetzak mantendu egin dira. Bata, Herrizaingo Sailordetza, ezertan aldatuko ez dena, eta bestea, Segurtasun Sailordetza; honetan Komunikazio Zuzendaritza kenduko da, eta bere eginkizunak Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoak bereganatuko ditu. Horrela, Ertzaintzaren Laguntzarako Zerbitzu guztiak bateratuko dituen Zuzendaritza bihurtuko da.

Azkenik, azpimarratutako aldaketekin batera bestelako aldaketa puntualago batzuk ere egon dira, batzuetan lege berri horien ondorioz eta beste batzuetan saileko Zuzendaritzen koordinazioa formalizatzea komeni-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### 2552

DECRETO 108/1996, de 14 de mayo, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Interior.

La estructura orgánica del Departamento de Interior vigente hasta ahora venía establecida en el Decreto 217/1993, de 17 de julio.

En el espacio temporal transcurrido desde entonces, ha sido aprobado por el Consejo de Gobierno, con fecha 28 de junio de 1994, el Informe de la Comisión para la Racionalización y Mejora de la Administración Pública, así como el Decreto 1/1995 de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por otro lado, dentro de las áreas de actuación correspondientes al Departamento de Interior, han sido aprobadas por el Parlamento Vasco la Ley 4/1995, de 10 de noviembre de 1995 relativa a Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, y la Ley 1/1996, de 3 de abril, de Gestión de Emergencias.

Estos motivos aconsejaban una revisión del Decreto 217/1993 de 17 de julio que, aunque no supone una reforma en profundidad, sí introduce algunas modificaciones substanciales y adapta algunas de sus previsiones a las novedades legislativas ya citadas.

Entre los cambios más significativos se puede mencionar que, en relación con los órganos dependientes del Consejero y aun cuando se mantienen la Dirección de Servicios y la Dirección de Régimen Jurídico, se resalta la importancia del Gabinete del Consejero, elevándolo al rango de Dirección, lo que lógicamente habrá de conllevar una consolidación de su estructura y una mayor dotación de medios a fin de que pueda realizar las funciones que se le encomiendan. En este caso, la experiencia nos ha enseñado que las funciones de este Gabinete no tienen carácter coyuntural, por lo que se considera conveniente su inserción en la estructura del Departamento como un órgano más del mismo.

Por otro lado, se mantienen las dos Viceconsejerías como los dos pilares fundamentales de las áreas de actuación del Departamento. Una de ellas, la Viceconsejería de Interior no sufre modificación alguna; sin embargo en la Viceconsejería de Seguridad se procede a la supresión de la Dirección de Comunicaciones, cuyas funciones quedan integradas en la Dirección de Unidad Técnica Auxiliar de Policía, que se configura así definitivamente como la Dirección que aglutina todos los servicios auxiliares de la Ertzaintza.

Por último, al lado de los cambios apuntados se encontraran a lo largo del articulado algunas modificaciones más puntuales que derivan de las novedades legislativas y, en algún caso, de la conveniencia de for-

garria delako, esperientziak garbi erakutsi baidu zeinen emankorrak izan daitezkeen Zuzendaritzen arteko hartu-eman iraunkorrak.

Ondorioz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, Lehendakaritzak onartu ondoren eta Jaurlaritza Kontseiluak 1996ko maiatzaren 14an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

## I. ATALBURUA

## SAILAREN ANTOLAKUNTZA OROKORRAZ

*1. atala.–* Herrizaingo Saila.

Urtarrilaren 3ko 1/1991 Dekretuaren 9. atalean xedatutakoaren arabera, honako hauek dira Herrizaingo Sailari dagozkion ihardun-arlo eta egitekoak, Ertzaintza, Hauteskunde Administrazioa, Larrialdiei Aurregitea, Transmisio eta Komunikazioa, Bidezaingoa, Joko eta Ikuskizunak eta Ibilgailuak, eta baita berari atxikitako administrazioko erakundeen zuzendaritza eta babesa, eta legeek eta arautegiek eman diezaizkioten gainontzeko ahalmenak.

*2. atala.–* Herrizaingo Saileko organoak.

1.– Aurreko atalean aipatutako alorren inguruko eskuduntzez baliatzeko, honako organo hauetan egituratzen da Herrizaingo Saila:

A.– Organo nagusiak:

1.– Sailburua.

1.1.– Sailburuaren Kabinete Zuzendaritza
1.2.– Zerbitzu Zuzendaritza.
1.3.– Lege Araubideko Zuzendaritza.

2.– Herrizaingo Sailordetza:

2.1.– Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.
2.2.– Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.
2.3.– Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritza.
2.4.– Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza.

3.– Segurtasun Sailordetza:

3.1.– Segurtasun sailburuordearen Kabinetea.
3.2.– Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritza.
3.3.– Ekintzetarako Baliabideen Zuzendaritza.
3.4.– Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Zuzendaritza.
3.5.– Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoaren Zuzendaritza.

B.– Inguruko organoak:

Bidezaingoko eta Joko eta Ikuskizunetako lurralde ordezkaritzak izango dira, horietako bakoitzeko arduradun funtzionari bat izango dela, beti ere zuzendariaren menpe egongo delarik. Lurralde Zerbitzu horien egin-kizunak Zuzendaritza bakoitza arautzeko orduan finkatzen direnak izango dira.

C.– Kontsultetarako organoak:

malizar la coordinación entre algunas de las Direcciones del Departamento, ya que la experiencia ha puesto de manifiesto lo fructífero que resulta el instrumentar de forma permanente las relaciones entre ellas.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión del día 14 de mayo de 1996,

DISPONGO:

## CAPITULO I

## DE LA ORGANIZACIÓN GENERAL DEL DEPARTAMENTO

*Artículo 1.–* El Departamento de Interior.

De acuerdo con lo dispuesto en el art. 9 del Decreto 1/1995, de 3 de enero, el Departamento de Interior es el órgano del Gobierno Vasco al que corresponden como áreas de actuación propias las de Policía, Administración Electoral, Atención de Emergencias, Transmisiones y Comunicaciones, Tráfico, Juego y Espectáculos y Parque Móvil, así como la dirección y tutela de los entes de la Administración institucional a él adscritos, y las demás facultades que le atribuyan las leyes y los reglamentos.

*Artículo 2.–* Órganos del Departamento.

1.– Para el ejercicio de las competencias correspondientes a las materias referidas en el artículo anterior, el Departamento de Interior, se estructura en los siguientes órganos:

A.– Órganos Centrales:

1.– El Consejero.

1.1.– La Dirección de Gabinete del Consejero.
1.2.– La Dirección de Servicios.
1.3.– La Dirección de Régimen Jurídico.

2.– La Viceconsejería de Interior.

2.1.– La Dirección de Atención de Emergencias.
2.2.– La Dirección de Juego y Espectáculos.
2.3.– La Dirección de Tráfico y Parque Móvil.
2.4.– La Dirección de Procesos Electorales y Documentación.

3.– La Viceconsejería de Seguridad.

3.1.– El Gabinete del Viceconsejero de Seguridad.
3.2.– La Dirección de Seguridad Ciudadana.
3.3.– La Dirección de Recursos Operativos.
3.4.– La Dirección de Policía de lo Criminal.
3.5.– La Dirección de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía.

B.– Órganos Periféricos:

Los servicios territoriales de tráfico y juego y espectáculos, a cuyo frente existirá un funcionario responsable de cada uno de los mismos, que dependerán de los titulares de las Direcciones correspondientes. El ámbito funcional de dichos servicios territoriales será el establecido al regular las Direcciones de que se trata.

C.– Órganos Consultivos:

Ertzaintza-kontseilua
Euskal Herriko Segurtasun-Batzordea.
Euskal Herriko Toki-mailako Poliziak Koordinatzeko Batzordea.
Toki-mailako koordinazio-Batzordea.
Euskal Herriko Herri Babeseko Batzordea.
Euskal Herriko Joko-Kontseilua
Euskal Herriko Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Ihardueretarako Kontseilua.
Euskal Herriko Bide Segurtasunerako Batzordea.

2.– Dekretu hau garatuz sailburuak emandako agindu bidez Dekretu honetan araututakoak baino maila apalagoko organoak ezarri ahal izango dira.

*3. atala.*– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 6.1 eta 7.3 ataletan ezarritakoarekin bat etorriz, Herrizaingo Sailari atxikita dago Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia Erakunde Autonomiaduna. Herrizaingo sailburuari dagozkio erakunde horren babeserako ahalmenak eta horren ihardunerako azterpide nagusiak ematea, segurtasun alorrean arduradun izan daitezen beste organo batzuen beharrezko koordinaketaren kaltetan gabe, Dekretu honen 13.2.b) atalean ezarritakoaren argitan.

II. ATALBURUA

SAILBURUAZ ETA BERE MENPE DAUDEN BESTE GOI-KARGUDUNEZ

*4. atala.*– Sailburua.

1.– Herrizaingo Saileko sailburuari dagokio, ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. atalean ohartemandako aginpidea eta ahalmenez baliatzea, eta baita Sailaren berezko ihardun-arlo eta eginkizunen eremuan indarrean dagoen legeriak izenda diezazkion oroz ere.

2.– Herrizaingo sailburuari dagozkio, gainera, Saileko kontratazio organoaren eginkizunak eta ondareari buruzko gaietan legeek kontratazio organoei izendatzen dizkienak ere.

3.– Zehatzeko edo zigortzeko ahalmenaren erabilerari dagokionez, Herrizaingo sailburuari dagokio Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 96.1.a) atalean eta xedapen gehigarrietatik hamazazpigarreneko 2 b) puntuan jasotako zehapenak jartzea, eta baita azken xedapen horretan jasotako zigorra proposatzea ere. Horrez gain, Jokoari buruzko Legearen 32.3 eta Ikuskizunak eta Jolas Iharduerei buruzko Legearen 38.3 d) ataletan ezarritako zehapenak jartzea ere berari dagokio, eta baita indarrean dauden arauek esanbidez izenda diezaizkionak ere.

4.– Saileko Zuzendaritza Batzordeak lagunduko dio sailburuari Sailaren politikaren gainbegiraketa eta jarraipenean, iharduketen plangintza orokorrean eta izenda diezaizkioten eginkizun guztietan.

Sailburuaren goi-aginpean, sailburuordeek, Zerbitzu

Consejo de la Ertzaintza
Comisión Vasca para la Seguridad
Comisión de coordinación de las Policías Locales del País Vasco
Comisiones de coordinación de ámbito local
Comisión de Protección Civil de Euskadi
Consejo Vasco del Juego
Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas
Comisión Vasca de Seguridad Vial

2.– Mediante Orden del Consejero dictada en desarrollo del presente Decreto, podrán establecerse unidades administrativas inferiores a las regulados en este Decreto.

*Artículo 3.*– Academia de la Policía del País Vasco.

De conformidad con lo dispuesto con los arts. 6.1. y 7.3. de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, está adscrito al Departamento de Interior el Organismo Autónomo Academia de la Policía del País Vasco. Corresponden al Consejero titular del Departamento las facultades de tutela de dicho organismo y la determinación de las directrices generales de su funcionamiento, sin perjuicio de la necesaria coordinación con otros órganos responsables en materia de seguridad, en los términos de lo dispuesto en el art. 13.2.b) del presente Decreto.

CAPITULO II

DEL CONSEJERO Y OTROS ALTOS CARGOS DEPENDIENTES DEL MISMO

*Artículo 4.*– El Consejero.

1.– Corresponden al Consejero de Interior el ejercicio de las competencias y facultades establecidas en el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio y el de cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación propias del Departamento.

2.– Corresponderá también al Consejero el ejercicio de las funciones del órgano de contratación del Departamento y las atribuidas por el Ordenamiento Jurídico en materia de patrimonio a los órganos que ostenten aquella condición.

3.– En ejercicio de la potestad sancionadora compete al Consejero titular del Departamento la imposición de las sanciones previstas en el art. 96.1.a) y en el punto 2.b) de la disposición adicional decimoséptima de la Ley de Policía del País Vasco, así como la propuesta de sanción prevista en ésta última disposición. También le corresponde la imposición de las sanciones determinadas en el art. 32.3 de la Ley de Juego, en los artículos 38.3 d) de la Ley de Espectáculos y Actividades Recreativas y demás que le sean expresamente atribuidas por la legislación vigente.

4.– El Consejo de Dirección del Departamento asistirá a su titular en la supervisión y seguimiento de la política del Departamento, en la planificación general de sus actividades y en cuantos asuntos le sean encomendados.

Bajo la superior dirección del titular del Departa-

zuzendariak, Komunikazio, Prentsa eta Protokola Zerbitzuaren arduradunak, Lege Araubideko zuzendariak eta sailburuak erabaki dezan beste guztiek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea.

*5. atala.–* Sailburuaren Kabinete Zuzendaritza

1.– Kabineteko zuzendariak lagunduko dio sailburuari bere eginkizunetan eta aholkularitza-lana ere egingo du. Hona hemen Kabineteak bere gain hartuko dituen eginkizunak:

a) Sailburuaren lan-egitaraua jarraitzea.

b) Sailaren politika garatzeko interesgarri izan daitezen sailburuak agindutako azterketa eta azterlanak egitea.

c) Sailaren eginbeharrekoetan eragina izan dezaten gaien inguruko informazio egokia bildu, aztertu eta aurkeztea. Horretarako gaiarekin zerikusia duten Saileko beste organo aginpidedunekin batera lan egingo du.

d) Saileko estadistiken elaborazioa koordinatzea eta arlo honekin zerikusia duen organo aginpidedunetan Sailaren ordezkari agertzea.

e) Giza-komunikabideekiko harremanak garatu eta izan eta Sailaren komunikazio politika taiutu eta aurrera eramatea, saileko gainontzeko organoei laguntzeko.

f) Eragindako gainontzeko organoekin elkar lanean, irudi kanpainak eta herritarren lankidetza eskatzeko helburua duten kanpainak diseinatu eta gauzatzea, Sailaren eginkizunarekin zerikusia duten gaietan herritarren parte hartzea bultzatzeko.

g) Herrizaingo Sailak egin ditzan ekintza ofizialen protokolo eta antolaketa era egokian garatu daitezen bermatuko du, Lehendakaritzaren Idazkaritzako Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagozkionen kaltetan gabe.

h) Sailak eratutako Kongresu , Ihardunaldi edo Solasaldien antolakuntza koordinatzea

i) Saileko Argitalpen-Plana prestatzea Argitalpenetako Zerbitzu Zentralarekin batera.

j) Saila eta Eusko Legebiltzarraren eta Arartekoaren arteko harremanak bideratzea Jaurlaritzako Lehendakaritzaren bitartez, berori baita organo aginpideduna.

k) Herritarrei informazio orokorra eskaintzeko iharduerak koordinatzea.

2.– Sailburuaren Kabinetean integratzen da Komunikazio, Prentsa eta Protokolo Zerbitzua .

Bere eginkizunak hobeto betetzeko, Komunikazio, Prentsa eta Protokolo Zerbitzuak beharrezko dituen giza-baliabide eta bitartekoak izango ditu, Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritzaren bidez.

*6. atala.–* Zerbitzu Zuzendaritza.

1.– Zerbitzu Zuzendaritzak, zuzenean sailburuaren menpe dagoen organoa izanik, bi eginkizun ezberdin

mento, el Consejo de Dirección estará integrado además, por los Viceconsejeros, el Director de Gabinete del Consejero, el Director de Servicios, el Director de Régimen Jurídico y aquellas otras personas que en su caso determine el Consejero.

*Artículo 5.–* Dirección de Gabinete del Consejero.

1.– Para el ejercicio de sus funciones, el Consejero contará con la asistencia y asesoramiento de la Dirección de Gabinete, que desarrollará las siguientes funciones:

a) El seguimiento del programa de trabajo del Consejero

b) Elaborar los estudios y análisis de interés para el desarrollo de la política del Departamento, que le sean requeridos por el Consejero.

c) Recopilar, analizar y trasladar la información pertinente sobre los asuntos que tengan incidencia en el quehacer departamental, requiriendo para ello la colaboración de otros Órganos del Departamento competentes por razón de la materia.

d) Coordinar la elaboración de las estadísticas departamentales y representar al Departamento en los órganos colegiados competentes en esta materia.

e) Desarrollar y atender las relaciones con los medios de comunicación social, así como diseñar y ejecutar la política de comunicación del Departamento, actuando como órgano de apoyo al resto de órganos del Departamento.

f) Diseñar y ejecutar las campañas o medidas de sensibilización social, destinadas a promover la colaboración ciudadana en materias relacionadas con el quehacer departamental, en coordinación con los demás órganos interesados.

g) Garantizar el adecuado desarrollo protocolario y organizativo de los actos oficiales que celebre el Departamento, sin perjuicio de los que pudieran corresponder a la Secretaría General de Relaciones Sociales e Institucionales de la Secretaría de Presidencia.

h) Coordinar la organización de Congresos, Jornadas o Seminarios promovidos por el Departamento.

i) La elaboración del Plan de Publicaciones del Departamento en colaboración con el Servicio Central de Publicaciones.

j) Canalizar las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco y con el Ararteko a través del órgano competente de la Vicepresidencia de Gobierno.

k) La coordinación de las funciones de información general al ciudadano.

2.– Se integra en el Gabinete del Consejero el Servicio de Comunicación, Prensa y Protocolo.

Para el mejor desarrollo de sus funciones, el Servicio de Comunicación, Prensa y Protocolo dispondrá de los medios humanos y materiales precisos a través de la Dirección de Seguridad Ciudadana.

*Artículo 6.–* La Dirección de Servicios.

1.– La Dirección de Servicios es un órgano que, bajo la directa dependencia del Consejero, tiene encomenda-

ditu bere gain. Batetik, saileko gainontzeko organoei —Segurtasun sailburuordetzaren menpe daudenei ez bezala—, lagunduko dien organoa da, eta organo horien ekonomia, langilegoa, patrimonioa eta kontratazioa, eta organizazio eta informatika ere berak kudeatzen ditu.

Bestetik, koordinazio-organoa da, eta berari dagokio Herrizaingo Sailari atxikitako gai horietan politika orokorra koordinatu eta bultzatzea. Horretarako beste organo aginpidedunen laguntza behar izango du; Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoarena eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoarena.

2.– Laguntzarako organoa den aldetik, Zerbitzu Zuzendaritzari ondoko eginkizunak dagozkio:

a) Sailari atxikitako funtzionari eta lan-itunpeko langileen Buruzagitza beteko du, Ertzaintzako funtzionariena, Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoarena eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakundeari autonomoari atxikitakoena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10. atalean xedatutakoaren arabera, Herrizaingo Sailari dagozkion aginpideen artean eta aurreko atalean aipatutako langileei dagokienez, honako hauek izango ditu:

1.– Lan-itunepeko aldibaterako langileak kontratatzea.

2.– Konpatibilitate-espedienteak izapidetu eta ebaztea, eta derrigorrezko eta gorputzeko ezinaren ondoriozko jubilazioak aldarrikatzea.

3.– Lanpostuen zerrendak proposatzea.

4.– Disziplinazko espedienteak irekitzea, horiek ebaztea jarri beharreko zigorra lege-urratze larriagatik denean eta lege-urratze arinegatiko zigorrak jartzea.

5.– Lizentziak eta baimenak ematea.

b) Sailaren kudeaketa ekonomikoa, Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoarena, 18. atalean araututakoa hain zuzen, izan ezik.

c) Administrazioaren kontratazio espedienteen eta Herrizaingo Sailaren ondareari buruzko izapideak egitea, Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoak kudeatu beharrekoak, 18. atalean araututakoak hain zuzen, izan ezik.

d) Saileko Erregistroen sistemaren antolaketa.

e) Sailaren bulegoetako barne araubidearen arreta eta zaintza, baita ondasun higigarri eta higiezinen administrazioa eta iraunerazpena egitea ere, polizi-zerbitzuetarakoena salbu.

f) Barne antolaketa eta informazio sistemetarako metodoak prestatzea, Sailaren zerbitzuetako lan sistemak arrazoizkoak eta hobeak izan daitezen, eta horiek eta polizi zerbitzuen menpekoen arteko lotura koordinatzea.

3.– Koordinazio organo lez honako eginkizun hauek dagozkio:

das dos funciones diferenciadas. Por un lado, es un órgano de apoyo al resto de órganos del Departamento, excepción hecha de los dependientes de la Viceconsejería de Seguridad, ya que tiene atribuida la gestión económica, de personal, de patrimonio y contratación, organización e informática.

Por otro lado, es un órgano de coordinación, a quien corresponde el impulso y seguimiento de la política del Departamento en estas materias, requiriendo para ello la colaboración de los demás órganos competentes en las mismas, la Dirección de Unidad Técnica Auxiliar de Policía y el Organismo Autónomo Academia de Policía del País Vasco.

2.– Como órgano de apoyo corresponden a la Dirección de Servicios las siguientes funciones:

a) Ostentar la Jefatura del personal funcionario y laboral adscrito al Departamento, con exclusión del personal funcionario de la Ertzaintza, del personal de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía y del adscrito al organismo autónomo Academia de Policía del País Vasco.

Respecto de las competencias correspondientes al Departamento de Interior en virtud de lo dispuesto en el artículo 10 de la Ley 6/1989 de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y en relación al personal indicado en el apartado anterior, ejercerá las siguientes facultades:

1.– Contratar al personal laboral temporal.

2.– Tramitar y resolver los expedientes de compatibilidad y declarar las jubilaciones forzosas y por incapacidad física.

3.– Proponer las relaciones de puestos de trabajo.

4.– Incoar expedientes disciplinarios, resolverlos cuando la sanción a imponer lo sea por falta grave e imponer sanciones por la comisión de faltas leves.

5.– Conceder licencias y permisos.

b) La gestión económica del Departamento, a excepción de aquella que corresponda expresamente a la Unidad Técnica Auxiliar de Policía, regulada en el art. 18.

c) La tramitación de los expedientes de contratación administrativa y de patrimonio competencia del Departamento de Interior, excepción hecha de los que correspondan a la Unidad Técnica Auxiliar de Policía, regulada en el art. 18.

d) La ordenación del sistema de Registro del Departamento.

e) Atención y cuidado del régimen interno de las dependencias del Departamento, así como la administración y conservación de bienes muebles e inmuebles, con excepción de los destinados a servicios policiales.

f) Preparar métodos de organización interna y sistemas de información, en orden a la racionalización y mejora de los sistemas de trabajo de los servicios del Departamento de Interior, y coordinar la relación de los mismos con los dependientes de los servicios policiales.

3.– Como órgano de coordinación ejercerá las siguientes funciones:

a) Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoarekin eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiarekiko elkar-lana bultzatzea, langileria, ekonomia, kontratazioa eta ondareari buruzko gaietan amankomuneko irizpideak finkatzeko.

b) Herrizaingo sailaren menpeko langileengan eragina duten Akordio– eta Hitzarmen-negoziaketan parte hartzea.

c) Hautaketa-froga eta barne lehiaketen deialdien oinarrien prestakuntza koordinatzea, eta baita Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoko eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko lanpostu zerrenden prestakuntza ere.

d) Sailaren aurrekontuaren aurreproiektua prestatzea, diru-sarrerak bereziki azpimarratuz, eta eragina duten saileko organoekin elkarlanean; eta gastu-programak ebaluatzea.

e) Aurrekontuetako aldaketak izapidetzea.

f) Kudeaketa ekonomikoaz, eta kontratazio eta ondareari buruz saileko informazio trinkoa prestatzea.

g) Saileko langileei buruzko informazio trinkoa prestatzea, Ertzainei buruzkoa izan ezik.

h) Jaurlaritzaren Kontseiluari edo Batzorde Delegatuei aurkeztu beharreko gai guztiak izapidetzea, baita Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko diren xedapenak eta administrazio egintzak izapidetzea ere.

i) Sailak izenpetuko dituen Hitzarmen administratiboei buruz informatzea; baita diru-laguntzak arautzen dituzten sailburuaren Aginduei buruz ere.

j) Jaurlaritzako beste sailekin edo beste erakundeekin komunikazio organo lez aritzea, baita bere aginpidearekin lotutako eginkizunetarako elkargoetan sailaren ordezkaritza betetzea ere.

*7. atala.–* Lege Araubideko Zuzendaritza.

1.– Sailburuaren zuzeneko ardurapean, Herrizaingo sailari egokitutako kudeaketa arloan Lege-Araubideko Zuzendaritza da lege-araubideari buruzko iharduketetarako koordinazio-organoa. Horrela, Lege Araubideko zuzendariak, egiturako bere goi-aginpearen bidez koordinatuko ditu Saileko organo ezberdinei atxikitako lege-zerbitzuak.

2.– Honako eginkizun hauek dagozkio Lege-Araubideko Zuzendaritzari:

a) Sailaren aginpidea alorreko arauen garapen planak prestatu, proposatu eta burutzea, kasuan kasuko xedapen orokorren egitasmoak landuz, guzti hori Sailaren barneko eragindako organoekin elkar lanean eta koordinatuta.

b) Herrizaingo Sailaren eta bere organoen egintza edo xedapenen aurka jar daitezen liskar-auzien jarraipena egitea eta kontrolatzea, eta baita haien aurka har-

a) Impulsar la colaboración con la Dirección Unidad Técnica Auxiliar de Policía y Academia de Policía del País Vasco, para la fijación de criterios comunes en materia de personal, gestión económica, contratación y patrimonio.

b) Participar en la negociación de los Acuerdos y Convenios que afecten al personal dependiente del Departamento de Interior

c) Coordinar la elaboración de las bases de convocatoria de pruebas selectivas y de concursos internos, así como la elaboración de las relaciones de puestos de trabajo de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía y de la Academia de Policía del País Vasco.

d) La preparación del anteproyecto del presupuesto del Departamento, con atención particular al capítulo de ingresos, en coordinación con los órganos departamentales afectados y la evaluación de los programas de gasto.

e) La tramitación de las modificaciones presupuestarias

f) Elaboración de la información consolidada del Departamento respecto a su gestión económica y en materia de contratación y patrimonio.

g) Elaboración de la información consolidada del Departamento respecto al personal dependiente del mismo, excepto el policial.

h) Tramitación de aquellos asuntos que deban ser elevados al Consejo de Gobierno o a sus Comisiones Delegadas, así como la de aquellas disposiciones y actos administrativos que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco.

i) Informar los Convenios administrativos a suscribir por el Departamento, así como las Ordenes del Consejero reguladoras de ayudas o subvenciones

j) Actuar como órgano de comunicación con el resto de los Departamentos del Gobierno, o con otras instituciones y ostentar la representación del Departamento en aquellos órganos colegiados cuyas funciones estén relacionadas con sus competencias.

*Artículo 7.–* Dirección de Régimen Jurídico.

1.– Bajo la directa dependencia del Consejero, la Dirección de Régimen Jurídico es el órgano de coordinación de las actuaciones de esta índole en el ámbito de gestión encomendado al Departamento de Interior. A tal efecto coordina a través de su superior dirección funcional la actividad de esta naturaleza atribuida a los demás órganos del Departamento.

2.– Corresponde a la Dirección de Régimen Jurídico el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Elaborar y proponer los planes de desarrollo legislativo en las materias de competencia del Departamento de Interior y desarrollarlos mediante la elaboración de los correspondientes proyectos de disposiciones de carácter general, todo ello en colaboración y coordinación con los diversos órganos departamentales afectados.

b) El seguimiento y control de los procedimientos contenciosos que se interpongan contra actos o disposiciones procedentes del Departamento de Interior y de

tutako erabakiena ere.

c) Herrizaingo Saileko sailburuak erabaki beharreko administrazio prozedurak izapidetzea eta Sailordetzako sailburuordeek erabaki beharrekoetan beharrezko aholkularitza eskaintzea.

d) Saileko organoek eska diezaizkioketen legezko txostenak ematea.

e) Ekonomia-Batzordeak eta Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta erabaki beharreko proiektuak eta gaiak aztertu eta horien inguruko txostena ematea, Zerbitzu Zuzendaritzarekin Koordinaturik.

f) Terrorismoak Kaltetutakoei erantzutea, horretarako bereziki sortutako Bulegoaren bidez.

3.– Eskumen Zibil eta Penalaren aurrean Ertzainak defendatu eta ordezkatzeko legeriak gaitzeari buruzko apirilaren 25eko 250/1995 Dekretuak Herrizaingo sailari atxikitzen dizkion eginkizunak ere Lege-Araubideko Zuzendaritzari dagozkio.

## III ATALBURUA

## HERRIZAINGO SAILORDETZAZ

*8. atala.–* Herrizaingo sailburuordea.

1.– Polizi-ihardunarekin zerikusirik ez duen segurtasun alorrean Herrizaingo Sailari izendatzen zaizkion eginkizunak dagozkio Herrizaingo Sailordetzari, horien artean larrialdien kudeaketa, bidezaingo eta ibilgailuak, joko eta ikuskizunak eta hauteskundeak.

2.– Herrizaingo sailburuaren eginkizuna izango da Sailordetzako ihardun multzoa programatzea eta bere organoen iharduerak zuzendu, koordinatu, bultzatu eta ikuskatzea, eta bereziki Euskal Herriko Autonomi Elkartean Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 32.2, eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Iharduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 38.3 c) ataletan jasotako zigorrak eta indarrean dauden arauek esanbidez izendatzen dizkiotenak jartzea, eta bere ardurapeko Zuzendaritzetako Zuzendariek emandako erabakien aurka jar daitezen errekurtso arrunten ebazpena ere.

3.– Honako Zuzendaritza hauek daude Herrizaingo Sailordetzan:
– Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.
– Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritza.
– Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.
– Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza.

*9. atala.–* Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.

1.– Honako eginkizun hauek dagozkio Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzari:

a) Eusko Jaurlaritzaren esku dauden larrialdietarako planak idatzi, prestatu eta horien ezarpena koordina-

sus órganos, así como el de las resoluciones recaídas en ellos.

c) La tramitación de los procedimientos administrativos que hayan de ser resueltos por el titular del Departamento y la prestación del asesoramiento que le fuere requerido, en los que deben ser resueltos por los titulares de las Viceconsejerías.

d) Emitir los informes jurídicos que le sean solicitados por los diversos órganos del Departamento.

e) Analizar e informar los proyectos y asuntos en general que vayan a ser objeto de deliberación y resolución por la Comisión Delegada para Asuntos Económicos y el Consejo de Gobierno, en coordinación con la Dirección de Servicios.

f) La atención a las Víctimas del Terrorismo a través de la Oficina específicamente creada con tal finalidad.

3.– Corresponde también a la Dirección de Régimen Jurídico el ejercicio de las funciones que el Decreto 250/1995, de 25 de Abril, sobre habilitación para representación y defensa ante las jurisdicciones penal y civil de los miembros de la Ertzaintza, atribuye al Departamento de Interior.

## CAPITULO III

## DE LA VICECONSEJERIA DE INTERIOR

*Artículo 8.–* El Viceconsejero de Interior.

1.– Corresponde a la Viceconsejería de Interior el ejercicio de las funciones atribuidas al Departamento de Interior en el ámbito de la seguridad, no relacionada con el ejercicio de las funciones policiales, comprendiendo la gestión de emergencias, tráfico y parque móvil, juego y espectáculos y régimen electoral.

2.– Compete al Viceconsejero de Interior la programación de actividades del conjunto de la Viceconsejería y la dirección, coordinación, impulso y supervisión de las actuaciones de sus órganos y en particular la imposición de las sanciones previstas en el artículo 32.2 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, reguladora del Juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el artículo 38.3 c) de la Ley 4/1995, de 10 de noviembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas y la de las demás que le sean expresamente atribuidas por la legislación vigente y la resolución de los recursos ordinarios que se interpongan contra las resoluciones procedentes de los titulares de las Direcciones de él dependientes.

3.– Dependen de la Viceconsejería de Interior las siguientes Direcciones:
– Dirección de Atención de Emergencias.
– Dirección de Juego y Espectáculos.
– Dirección de Tráfico y Parque Móvil.
– Dirección de Procesos Electorales y Documentación.

*Artículo 9.–* Dirección de Atención de Emergencias.

1.– Corresponden a la Dirección de Atención de Emergencias las siguientes funciones:

a) La redacción y elaboración de los planes de emergencia de la competencia del Gobierno Vasco y coordi-

tzea, kasuan kasuko planak bere zuzendaritzari buruz ezartzen dituen xedapenekin bat etorriz.

b) Euskal Autonomi Elkarteko beste Administrazioen ardurapeko larrialdietarako planen idazketa bultzatzeko laguntza ematea eta baita, Autonomi Elkarteko mugez kanpoko eremua hartzen badute ere, Euskal Autonomi Elkarteko lurraldean eragin berezia izan dezaketenetan ere, beti ere legeetan ohartemandako bideak erabiliz.

c) Arrisku, hondamendi edo hondamen publiko larria izan gabe, larrialdi edo gertaera larriren bat dagoenean burutu beharreko ekintza-jokabideen prestakuntza bultzatu eta koordinatzea, beren erabilerarako iharduerak zuzendu eta ekintzetarako baliabideak koordinatzea.

d) Euskal Autonomi Elkartean gerta daitezkeen larrialdi-egoerei aurre egiteko era guztietako bitarteko eta baliabideak sortu eta garatzeko eragitea.

e)Herri Babesaren inguruko gaikuntza politika bultzatu eta aurrera eramatea,larrialdietan eskuhartzen duten giza-baliabideen heziketa eta herritarren autobabesa bultzatuz.

f) Herri izaerako edo izaera pribatuko erakundeek herri babesaren inguruan egin ditzaten ekintzen aldeko sustapen politika bultzatu eta aurrera eramatea.

g) Herri Babesa eta larrialdiei buruzko gaiak zerrendatu eta koordinatzea, edota behar bada organo autonomoetan, estatukoetan edo nazioartekoetan zuzendu edo parte hartzea.

2.– Zuzendaritza honi atxikitzen zaio Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzari Laguntzeko Zerbitzua (LALZ), Ertzaintzako kideen funtzionari-estatutuarekin zerikusia duten aferak salbu.

Larrialdiei aurre egiteko Zuzendaritzari atxikita gelditzen dira SOS-Deiak Ekintzak Koordinatzeko Zentruak. Zentruok CECOP edo CECOPI legez ihardungo dute beti, zer dagokienaren arabera, Euskal Autonomi Elkarte mailako larrialdietarako planak ezartzeko orduan.

SOS-Deiak Zentruetan gainera laguntza-eskerako dei guztiak ere jasoko dira, premiazko zerbitzua zein den ikusi ondoren, deiok Dekretu honen 15. atalean jasotako Ertzaintzaren Agintaritza eta Kontrol Zentrura, Osakidetzako Larrialdietarako Zentrura, edo kasu bakoitzean dagokion besteren batera helaraziz.

*10. atala.–* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

1.– Honako eginkizun hauek dagozkio Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari, Dekretu honen 2. puntuan Zuzendaritzako Lurralde Zerbitzuei izendatutakoen kaltetan gabe:

a) Kasinoak, Bingoak, Jolas eta Joko Aretoak jarri,

nar su aplicación, de conformidad con las determinaciones que sobre su dirección establezca el propio plan de que se trate.

b) Colaborar, a través de los instrumentos previstos en el ordenamiento jurídico, en el impulso a la redacción de los planes de emergencia de responsabilidad de otras Administraciones de la Comunidad Autónoma, y en aquellos que aun siendo de ámbito supracomunitario tengan particular incidencia en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Impulsar y coordinar la elaboración de tácticas operativas aplicables en situaciones de emergencia o incidencia grave, que no sean de grave riesgo, catástrofe o calamidad pública, dirigir las actuaciones para su tratamiento y coordinar los recursos operativos.

d) Fomentar la creación y desarrollo de medios y recursos de todo orden orientados a dar respuesta a las posibles situaciones de emergencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) Impulsar y ejecutar una política de formación en materia de protección civil, fomentando tanto la formación de los recursos humanos intervinientes en las emergencias, como la autoprotección de la ciudadanía.

f) Impulsar y ejecutar una política de fomento en apoyo de todas las actividades que, relacionadas con la Protección Civil desarrollen entidades de carácter público o privado.

g) Llevar la relación y coordinación y en su caso dirigir o participar en órganos autónomos, estatales o internacionales en materia de protección civil y emergencias.

2.– Queda asignado a esta Dirección a todos los efectos, con excepción de los asuntos relacionados en el estatuto funcionarial de los miembros de la Ertzaintza que lo integren, el Servicio de Apoyo a la Dirección de Atención de Emergencias (SADAE).

Quedan adscritos a la Dirección de Atención de Emergencias los Centros de Coordinación de Emergencias (SOS-Deiak). Dichos Centros actuarán en todo caso como CECOP (Centro de Coordinación Operativa) o CECOPI (Centro de Coordinación Operativa Integrada) según proceda, en la aplicación de los planes de protección civil de ámbito vasco.

Los Centros de Coordinación de Emergencias actuarán como receptores de cualesquiera llamadas de auxilio, procediendo a derivarlas inmediatamente en función del servicio urgente requerido, bien al Centro de Mando y Control policial previsto en el artículo 15 del presente Decreto, bien al Servicio de Atención Urgente del Servicio Vasco de Salud (Osakidetza) o a aquel otro que corresponda en cada caso.

*Artículo 10.–* La Dirección de Juego y Espectáculos.

1.– Corresponde a la Dirección de Juego y Espectáculos el ejercicio de las siguientes facultades y funciones, sin perjuicio de las atribuidas en el punto 2 del presente Decreto a los Servicios Territoriales de la Dirección:

a) Autorizar la instalación, apertura, modificación y

zabaldu, moldatu, berriztatu eta ihardunean jartzeko baimena ematea, eta baita, hala badagokie, iraungita aldarrikatzea ere; bai eta Euskal Autonomi Erkidegoan indarrean dagoen araudian aipatutako joko-moeta guztietarako ere.

b) Joko-ihardueraren zerikusia duten eginkizunak betetzeko beharrezko lanbide-agiriak eman, berriztatu, eta, hala badagokie, indargabetzea.

c) Euskal Autonomi Erkidegoaren lurralde eremuan diharduten joko-mota desberdinak ustiatuko dituzten entrepresei baimenak eman, aldatu, berriztatzea, edota, hala badagokie, baimena ezabatzea.

d) Joko-makinak ustiatzeko baimenak eman eta, hala badagokie, berriztu eta iraungita daudela aldarrikatzea.

e) Joko eta ikuskizun eta jolas-ihardunen inguruko zigortzeko ahalmena kontrolatu, ikuskatu eta burutzea, Euskal Autonomi Elkartean Jokoa arautzeko 4/1991 Legearen 32.1, eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Iharduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 38.3 b) ataletan jasotako zigorrak, eta indarrean dauden arauek izenda diezaizkionak jarriz.

Aipatutako zigor-espedienteak Zuzendaritzako teknikoek izapidetuko dituzte, kasu bakoitzean ezargarri diren arauen arabera.

f) Euskal Autonomi Elkartean baimendu beharreko jokorako material, osagai, tresna edo elementuak finkatu, homologatu eta ikuskatzea.

g) Ikuskizun eta jolas-ihardunen alorrean Herrizaingo Sailari izendatutako aginpidea guztiak egiteratzea, beste ihardun-sailei izendatutakoak izan ezik.

h) Joko eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Iharduerak eta Ikuskizunei buruzko gaiak zerrendatu eta koordinatzea, edota behar bada organo autonomoetan, estatukoetan edo nazioartekoetan zuzendu edo parte hartzea, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Ihardueretarako Euskal Herriko Kontseiluari dagozkion koordinazio– ahalmenen kaltetan gabe.

2.– Zuzendaritza honen menpe dauden Joko eta Ikuskizun lurralde zerbitzuek zuzendariak izendatzen dion aginpide eta ahalmenen arabera ihardungo dute dagokien lurraldean.

a) Jendaurreko ikuskizunak eta jolas iharduerak egiteko baimenak ematea, zezen-ikuskizunetarako eta ezaugarri bereziak dituzten beste batzuetarako izan ezik, horrelakoetarako zuzendariak berak emango ditu.

b) «A» moetako eta «B» moetako makinei dagozkien izapideak egitea eta baimenak ematea, ustiaketa-baimenak eta jabez aldatzekoak izan ezik.

c) Beharrezko lanbide-dokumentuak ematea eta berritzea Bingo Artoetan ihadun ahal izateko.

funcionamiento, renovación y, en su caso, caducidad de casinos, bingos, salones recreativos y de juego, así como cuantas modalidades de juego estén previstas por la normativa en vigor en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Otorgar, renovar y, en su caso, revocar los documentos profesionales necesarios para el desempeño de funciones en relación con actividades de juego.

c) Autorizar la constitución de las empresas explotadoras de las diversas modalidades de juego dentro del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la modificación, renovación y, en su caso, extinción de las mismas.

d) Otorgar y, en su caso, renovar o declarar la caducidad de permisos de explotación de máquinas de juego.

e) Controlar, inspeccionar y ejercer la potestad sancionadora en materia de juego y espectáculos públicos y actividades recreativas, imponiendo las sanciones previstas en el artículo 32.1 de la Ley 4/91 de 8 de noviembre de Juego del País Vasco, en el artículo 38.3 b) de la Ley 4/95 de 10 de noviembre de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas y las demás que le vengan atribuidas por la legislación vigente.

Los referidos expedientes sancionadores serán tramitados por técnicos de la Dirección, en función de la legislación aplicable en cada caso.

f) Determinar, homologar e inspeccionar los materiales, componentes, instrumentos o elementos de juego a autorizar en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

g) Ejercer todas aquellas facultades que en materia de espectáculos públicos y actividades recreativas estén asignadas al Departamento de Interior a excepción de aquellas que estén reservadas a otros órganos.

h) Llevar la relación y coordinación y, en su caso, dirigir o participar en órganos autonómicos, estatales o internacionales en materia de juego y espectáculos públicos y actividades recreativas, sin perjuicio de las facultades de coordinación correspondientes al Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

2.– Los Servicios Territoriales de Juego y Espectáculos dependientes de esta Dirección ejercerán, de acuerdo con las instrucciones emanadas del titular de la Dirección, las siguientes facultades y competencias dentro de su ámbito territorial:

a) Otorgamiento de las autorizaciones para la celebración de espectáculos públicos y actividades recreativas, con excepción de las correspondientes a espectáculos taurinos generales y aquellas otras que por sus características específicas fueran abocadas por el titular de la Dirección.

b) Tramitación y autorizaciones relativas a máquinas de tipo «A», así como las relativas a máquinas de tipo «B» con excepción de las autorizaciones de permisos de explotación y su transmisión.

c) Otorgamiento y renovación de los documentos profesionales necesarios para el desempeño de funciones en las salas de bingo.

d) Dagokion lurraldeko ikuskapenarekiko koordinazioa.

3.– Ezarritako eginkizunez baliatzeko Ertzaintzako Joko Atala Joko eta Ikuskizun zuzendariaren menpe egongo da egituran ondorio guztietarako, Ataleko kideen funtzionari estatutuarekin zerikusia duten gaietan salbu.

*11. atala.*– Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritza.

1.– Honako eginkizun hauek dagozkio Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzari:

a) Trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide segurtasunari buruzko arauen aurkako lege-urratzeagatik ireki daitezen zigor-espedienteen izapideak egitea eta erabakitzea, legeetan xedatutakoarekin bat etorriz.

b) Garraio eta Ibilbilgailu berezien zirkulaziorako baldintzen inguruko aginduak ematea.

c) Lasterketa, txapelketa eta, oro har, kirol-saioetarako baimena ematea, ibilbideak zati batean edo osoan hiri arteko bideetatik egin behar direnean.

Ekitaldi horiek direla eta, jendetza handia bilduko dela aurrikusten denean, horrek dakarren segurtasun mailako arazoez, egiteko hori Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritza eta Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzarekin batera burutuko da.

d) Ibilgailu historikoen Araudia onartzen duen uztailaren 14ko 1247/1995 Errege Dekretuan ezarritako eginkizunetan ihardutea.

e) Gidarientzako jabetzapeko eskolak eratu eta ihardunean jartzeko ikuskatu eta baimena ematea, eta hala badagokie, emandako baimenak iraungita, etenda edo deuseztatuta aldarrikatzea.

Bidezaingoko Lurralde Zerbitzuak bakoitzaren aginpideko lurraldean zerbitzu-organoen bitartez lehen aipatutako ahalmenen guztiez baliatuko dira.

Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasunaren arloan zigor-ihardunbidea arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera, Bidezaingoko Lurralde Zerbitzu bakoitzeko Isun-arduraduna izango da zigor espedienteen izapideak egingo dituen organoa, Bidezaingoko Lurralde Zerbitzuko Arduradunak baitira zigorrak ezartzeko aginpidea dutenak.

2.– Ondoko hau ere Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzaren aginpidekoa da:

a) Bide-hezkuntzako irakasle titulua eta gidatzen irakasteko eskoletako zuzendariarena lortzeko saioak antolatzea, tituluak eman eta, hala badagokie, kendu edo baliogabetzea, eta baita auto-eskola horietako irakasleentzako eguneratze ikastaroak antolatzra ere.

b) Bide-hezkuntza eta bide-segurtasuneko zabalkunde-kanpainen plangintza antolatu eta garatzea, eta bidezaingoa, zigorrak eta bide-istripuei buruzko estatistikak prestatu, aztertu eta jakitera ematea.

c) Indarrean dauden arauen arabera bide publikoetatik ibiltzen diren ibilgailuen zirkulazioan beharrezko diren mugak ezartzea.

d) Coordinación con la inspección en su ámbito territorial.

3.– Para el ejercicio de las funciones establecidas, la Unidad de Juego y Espectáculos de la Ertzaintza queda asignada a la Dirección de Juego y Espectáculos a todos los efectos, con excepción de los asuntos relacionados con el estatuto funcionarial de los miembros de la Unidad.

*Artículo 11.*– Dirección de Tráfico y Parque Móvil.

1.– Compete a la Dirección de Tráfico y Parque Móvil el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La instrucción y resolución de los expedientes sancionadores que se incoen por infracciones cometidas contra la normativa de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, y disposiciones complementarias.

b) Dictar instrucciones sobre las condiciones de circulación de los transportes y vehículos especiales.

c) Autorizar e informar sobre las carreras, certámenes y pruebas deportivas en general, que discurran total o parcialmente por vías interurbanas.

En los casos en que resulte previsible que dichos eventos puedan dar lugar a concentraciones de masas con los consiguientes problemas de seguridad, el ejercicio de tal competencia se coordinará con las Direcciones de Seguridad Ciudadana y Atención de Emergencias.

d) El ejercicio de todas aquéllas funciones previstas en el R.D. 1247/1995, de 14 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Vehículos Históricos.

e) Inspeccionar y autorizar la instalación y funcionamiento de escuelas particulares de conductores y declarar, en su caso, la extinción, suspensión y revocación de las autorizaciones concedidas.

Todas las facultades anteriormente mencionadas serán ejercidas por los órganos correspondientes de los Servicios Territoriales de Tráfico dentro de su ámbito competencial.

A los efectos previstos en la normativa que regula el procedimiento sancionador en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, será el Responsable de sanciones de cada Servicio Territorial de Tráfico el órgano encargado de la instrucción de los expedientes sancionadores, siendo los competentes para sancionar los Responsables Territoriales de Tráfico.

2.– Es competencia, además, de la Dirección de Tráfico y Parque Móvil:

a) Convocar pruebas para la obtención del título de profesor de formación vial y el de director de escuelas de enseñanza de la conducción, expedir los títulos correspondientes y en su caso suspenderlos, intervenirlos o revocarlos, así como convocar cursos de reciclaje de profesores de dichas escuelas.

b) Organizar y desarrollar el planeamiento de campañas divulgativas de formación y seguridad vial, y elaborar, estudiar y divulgar las estadísticas sobre tráfico, sanciones y accidentes de circulación.

c) Establecer las restricciones necesarias en la circulación de vehículos por las vías públicas de acuerdo con la legislación vigente.

3.– Trafiko arloan erakunde desberdinen laguntza bermatzeari dagokionez, Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzari dagokio:

a) Errepidetiko eta bideetatiko garraioaren zaingoa, segurtasuna, ikuskapena, kontrola eta salaketa-eginkizunak betetzerakoan Foru Aldundiekin elkar-lanean arituko da, eta eta hiriarteko sinalizazioak ere berak erabakiko ditu.

b) Beste Herri-Administrazioetako organo baliokideekin hartu-emanak sortu eta elkar-lanerako argibideak finkatzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko beste organo batzuekin koordinatzea, batez ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin bidesegurtasunari buruzko berarizko programazioa lortzeko ikastetxeetarako, eta Osasun sailarekin edari alkoholdunak, droga toxikoak, estupefazienteak eta sustantzi psikotropikoak istripuekiko duten eragina aurrikusteko.

d) Toki-mailako polizien iharduera mugatzeko argibideak ematea, Euskal Autonomi Erkidegoko Trafiko, Motordun Ibilgaluen Zirkulazioa eta Bide Segurtasunari buruzko araudia bete eta interpreta dezaten.

4.– Trafikoa zaintzeko, arautzeko eta kontrolatzeko edozein neurri ezartzerakoan, eta Bide Segurtasuna mantentzerakoan Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzak Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritzaren bidez Euskal Herriko Ertzaintzaren behar diren atalen laguntza izango du. Horretarako iharduera horietan nagusituko den beharrezko elkar-lana bideratzeko barne-organo bat sortzea proposatuko da eta bere egitura eta funtzionamendua behar bezala tajutuko da.

5.– EAEko Bide Segurtasun Batzordearen Komite Iraunkorraren lehendakaria Bidezaingo eta Ibilgailuen zuzendaria izango da, EAEko Bide Segurtasun Batzordea eratzeko otsailaren 9ko 22/1993 Dekretuaren 7. a) atalen ezarritakoarekin bat etorriz, aipatutako Araudiko 8. atalean atxikitzen zaizkion eginkizunez baliatuko delarik.

6.– Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzari dagokio, baita ere, Euskadiren ondareko berebil eta ibilgailu-zerbitzuen antolaketa, kudeaketa eta administrazioa. Aginpide horiez baliatzeko irailaren 24eko 504/1991 Dekretuan xedatutakoa jarraitu beharko da, edo horren ordez ematen diren arauak.

*12. atala.–* Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza.

Honako eginkizun hauek dagozkio Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritzari:

a) Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legeak Herrizaingo Sailari modu iraunkorrean atxikitzen dizkion eginkizun eta aginpide guztiak planifikatu eta garatzea, euren izaera goi-mailakoa izateagatik sailburuaren esku uzten direnak izan ezik.

b) Estatuko eremuan edo hortik kanpora garatzen

3.– Al efecto de garantizar la colaboración de las diversas instituciones en materia de Tráfico, corresponderá a la Dirección de Tráfico y Parque Móvil:

a) La colaboración con las Diputaciones Forales en el ejercicio de las funciones de vigilancia, seguridad, inspección y denuncia del transporte por carretera y de las vías cuya titularidad les corresponda, así como en la determinación de las señalizaciones en vías interurbanas.

b) Establecer la relación, así como las pautas de colaboración, con los órganos equivalentes de otras Administraciones Públicas.

c) La coordinación con otros órganos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, propiciando la colaboración con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en orden a lograr una programación específica de seguridad vial en los centros de enseñanza y con el Departamento de Sanidad para analizar y prevenir la incidencia en los accidentes de tráfico de bebidas alcohólicas, drogas tóxicas, estupefacientes y sustancias psicotrópicas.

d) Dictar las instrucciones a que deba ajustarse la actuación de las Policías Locales para la observancia e interpretación de la normativa sobre tráfico, circulación de vehículos de motor y seguridad vial en el Territorio de la Comunidad Autónoma.

4.– En el establecimiento de cualesquiera medidas de vigilancia, regulación y control del tráfico y de mantenimiento de la seguridad vial, la Dirección de Tráfico y Parque Móvil contará, a través de la Dirección de Seguridad Ciudadana, con el soporte de las Unidades precisas de la Policía del País Vasco. Para ello se promoverá la creación de un órgano interno que permita encauzar la necesaria colaboración que debe presidir estas actuaciones, y cuya estructura y funcionamiento se definirán reglamentariamente.

5.– El Director de Tráfico y Parque Móvil presidirá el Comité Permanente de la Comisión de Seguridad Vial de la CAPV de conformidad con lo previsto en el art. 7 a) del D. 22/1993 de 9 de febrero por el que se crea la Comisión de Seguridad Vial de la CAPV, ejerciendo las funciones que le asigna el art. 8 del mencionado Reglamento.

6.– Corresponderá también a la Dirección de Tráfico y Parque Móvil la ordenación, gestión y administración de los servicios automovilísticos y de los vehículos integrados en el patrimonio de Euskadi. El ejercicio de estas competencias se ajustará a lo dispuesto en el D. 504/91, de 24 de septiembre, o en la legislación que lo sustituya.

*Artículo 12.–* Dirección de Procesos Electorales y Documentación.

Corresponde a la Dirección de Procesos Electorales y Documentación el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Planificar y Desarrollar todas las funciones y competencias que con carácter permanente la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco adscribe al Departamento de Interior, a excepción de aquellas que por su mayor naturaleza quedan reservadas al Consejero.

b) Efectuar el seguimiento de cuantos procesos elec-

diren hauteskunde prozesu guztien jarraipena egitea, Euskal Herriko herritarren ordezkaritza politikoan eragina izan dezaketen neurrian, horrela hauteskundeetako arauak aztertuta eta bilduta egon daitezen.

c) Eusko Legebiltzarreko Hauteskunde-Legearen 151. atalean arautzen den urteko diru-laguntza soziopolitikoaren zenbatekoa nola banatu proposatzea.

d) Beharrezko dokumentuen datu-basea prestatu eta mantentzea sailaren informazio-politika eraginkor bat lortzeko.

e) Sailarentzak interesgarriak izan daitezken informazio-agirien azterketa eta sailkapena garatzea.

f) Saileko politika era ezin hobean aurrera eraman eta administrazio-zerbitzuak erarik onenean lantzeko beharrezko diren bibliografi eta teknikazko agiri guztiak katalogatzeko organo muduan aritzea.

IV ATALBURUA

SEGURTASUN SAILORDETZAZ

*13. atala.–* Segurtasun sailburuordea.

1.– Polizi-ihardunarekin zerikusia duen pertsona eta ondasunen segurtasun alorrean eta herritarren segurtasun alorrean Herrizaingo Sailari izendatzen zaizkion eginkizunak dagozkio Segurtasun Sailordetzari, polizi-iharduna aurrera eramateko beharrezko bitarteko eta sistema lagungarrien hornikuntza eta kudeaketa barne.

2.– Saileko sailburuaren goi-aginpean, Segurtasun sailburuordeari dagokio Ertzaintzaren zuzeneko agintaritza eta horren menpeko diren Ertzain Atal eta zerbitzuen zuzendaritza, ikuskaritza eta koordinazioa.

Segurtasun sailburuordeari, horiez gain, honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Ertzaintzaren eta zerbitzu lagungarrien ezarrera eta zabalkundea planifikatzea, eta lanpostu-zerrendak prestatzea.

b) Ertzaintzaren antolakuntza orokorra eta maila eta espezialitate bakoitzean egon daitezen langileen premiak finkatu, ondoren aukeraketa eta gaikuntza aldiak eta kasuan kasuko azterketak bideratzeko.

c) Beste Polizi-kidego batzuekiko koordinaketarako Autonomi Elkartearen erizpide orokorrak finkatzea.

d) Ekonomi-ihardunеko plan eta proiektuak prestatu eta horien ezarpena koordinatzea.

e) Ertzaintzako kideen estatutu erregimena ezartzeko egokiak izan daitezen administrazio egintza eta ebazpen guztiak, Dekretu honetan ohartemandakoaren arabera beste organo batzuei izendatzen ez zaizkien heinean.

f) Hamar milioi pezetararteko isunak jartzeko Autonomi Elkarteak dituen aginpideak erabiltzea, eta Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren

torales se desarrollen en el ámbito del Estado o fuera de él que tengan incidencia en la representación política de los ciudadanos del País Vasco, analizando y recopilando toda la normativa electoral reguladora.

c) Proponer la distribución de las cuantías de la subvenciones socio-políticas de carácter anual que, en su caso, correspondan con arreglo a los criterios fijados en la legislación vigente.

d) Elaboración y mantenimiento de las Bases de Datos documentales necesarias para el logro de una efectiva política informativa del Departamento.

e) Desarrollar funciones del estudio, análisis y clasificación de la documentación informativa de interés departamental.

f) Actuar como órgano de catalogación de cuanta documentación bibliográfica y técnica sea precisa para un perfecto ejercicio de la política departamental y la optimización de los servicios administrativos.

CAPITULO IV

DE LA VICECONSEJERIA DE SEGURIDAD

*Artículo 13.–* El Viceconsejero de Seguridad.

1.– Corresponden a la Viceconsejería de Seguridad el ejercicio de las funciones atribuidas al Departamento de Interior en el ámbito de la seguridad de las personas y bienes y seguridad ciudadana relacionadas con la actividad de la policía, incluida la dotación y gestión de medios y sistemas auxiliares necesarios para el desenvolvimiento de la actividad policial.

2.– Bajo la superior dirección del Consejero titular del Departamento, compete al Viceconsejero de Seguridad el mando directo de la Ertzaintza y la dirección, inspección y coordinación de sus unidades y de los servicios policiales que dependen de la misma.

También corresponden al Viceconsejero de Seguridad las siguientes competencias:

a) La planificación de la implantación y despliegue de la Ertzaintza y sus servicios auxiliares, así como la elaboración de sus plantillas.

b) La organización general de la Ertzaintza, determinando las necesidades de personal en las diversas escalas y especialidades, en orden a la instrumentación de los correspondientes procesos de selección y formación y las evaluaciones pertinentes.

c) La determinación por parte de la Comunidad Autónoma de los criterios generales de coordinación con otros Cuerpos de Policía.

d) La elaboración de los planes y proyectos de actuación económica y la coordinación de su aplicación.

e) Todos los actos y resoluciones administrativas pertinentes en aplicación del régimen estatutario de los miembros de la Ertzaintza que no están expresamente atribuidos a otros órganos en virtud de lo dispuesto en el presente Decreto.

f) El ejercicio de las competencias de la Comunidad Autónoma para imponer las sanciones de multa de hasta diez millones de pesetas y las demás previstas en la

21eko 1/1992 Lege Organikoan xedatutako guztiak.

g) Segurtasun Pribatuko uztailaren 30eko 23/1992 Legean aurrikusitako administrazio ahalmenez baliatzea, berariaz beste organo batzuei atxikituak ez badira.

3.– Segurtasun Sailordetza izango du polizia-zerbitzua emateko Datu-Elaboraziorako Zentruaren eta hori osatzen duten fitxategien ardura, Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Legearen 12, 13, 14 eta 15 ataletan aurrikusitakoaren ondorioetarako.

4.– Honako Zuzendaritza hauek daude Segurtasun Sailordetzaren menpe:

4.1.– Segurtasun sailburuordearen Kabinetea.
4.2.– Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritza.
4.3.– Ekintzetarako Baliabideen Zuzendaritza.
4.4.– Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Zuzendaritza.
4.5.– Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoaren Zuzendaritza.

*14. atala.*– Segurtasun Sailburuordearen Kabinetea.

1.– Egituraz Zuzendaritza maila izango duen Segurtasun sailburuordearen Kabineteak aurreko atalean izendatzen zaizkion eginkizun eta aginpideetan lagunduko dio. Horrez gain, honako eginkizun hauek ere izango ditu:

a) Polizia-zerbitzua antolatzeari buruzko azterlanak eta proiektuak prestatzea, eta kudeaketa eraginkorra eta kontrola ahalbideratzeko sistema, metodo eta prozedurak ezartzea.

b) Metodo eta teknika profesionalen modernizazioa eta hobekuntza bultzatzea, zerbitzu hobea emateari begira ertzainen hautaketa eta formazioari buruzko irizpideak prosposatzea eta polizia-zerbitzuarekin zerikusia duten edozein aferatan ertzaintzako funtzionarioak aholkatu eta informatzea.

c) Zerbitzuaren kalitatea ebaluatzea ahalbideratzen duen errendimendu polizialaren irizpideak ezartzea; polizi-iharduera, errendimendua eta eraginkortasunmaila ikuskatzea; polizia-zerbitzuen hobekuntzarako Ekimen-Bulegoa kudeatzea; eta Ertzaintzarekiko gizarteak dituen beharrak ezagutzeko ahaleginak egitea.

d) Etika profesionalaren aurkako funtzionarioen jokabideak ikertzea eta Ertzaintzako funtzionarioen zigor-espedienteak izapidetzea.

e) Ertzaintzaren Zentru eta Unitateetan eta bere sistema informatiko eta komunikazio-sistemetan inplementatzeko neurri, arau eta segurtasun elementuei buruzko irizpideak finkatzea; eta horien betetze-mailaren jarraipena egitea.

f) Sailordetzako argitalpen teknikoak eta Ertzaintzaren Aldizkari Ofiziala koordinatzea.

g) Iharduera eta informazio polizialari buruzko estadistikak prestatzea, datuen definizioa, datu-bilketaren prozesuaren antolaketarako irizpideak, eta horien azterketa eta prospekzioa barne.

Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre protección de la Seguridad Ciudadana.

g) El ejercicio de las facultades administrativas de autorización, resolución de procedimientos sancionadores y demás previstas en la Ley 23/1992, de 30 de julio, de Seguridad Privada no encomendadas expresamente a otros órganos.

3.– El Viceconsejero de Seguridad es el órgano responsable del Centro de Elaboración de Datos para el servicio policial y los ficheros que lo integran, a los efectos previstos en los artículos 12, 13, 14 y 15 de la Ley 4/1992 de Policía del País Vasco.

4.– Dependen de la Viceconsejería de Seguridad las siguientes Direcciones:

4.1.– El Gabinete del Viceconsejero de Seguridad.
4.2.– La Dirección de Seguridad Ciudadana.
4.3.– La Dirección de Recursos Operativos.
4.4.– La Dirección de Policía de lo Criminal.
4.5.– La Dirección de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía.

*Artículo 14.*– Gabinete del Viceconsejero de Seguridad.

1.– El Gabinete del Viceconsejero de Seguridad, con rango orgánico de Dirección, le asistirá en el ejercicio de las funciones y competencias atribuidas en el artículo precedente. Ejercerá además las siguientes funciones:

a) La elaboración de estudios y proyectos sobre organización del servicio policial y el establecimiento de los sistemas, métodos y procedimientos que posibiliten una eficaz gestión y control del mismo.

b) Promover la modernización y perfeccionamiento de los métodos y técnicas profesionales, proponer criterios sobre selección y formación de los funcionarios de policía dirigidos a la mejora de la prestación del servicio, y asesorar e informar a los funcionarios de la Ertzaintza en cualesquiera asuntos relacionados con el servicio policial.

c) Establecer los criterios de rendimiento policial que permitan evaluar la calidad del servicio, inspeccionar las actividades, el rendimiento y nivel de eficacia policial. Gestionar la Oficina de Iniciativas para la Mejora de los Servicios Policiales y profundizar en los conocimientos sobre necesidades sociales en relación a la Ertzaintza.

d) Investigar las conductas funcionariales contrarias a la ética profesional y tramitar los expedientes disciplinarios de los funcionarios de la Ertzaintza.

e) Definir los criterios sobre las medidas, normas y elementos de seguridad a implementar en los Centros y Unidades de la Ertzaintza y en sus sistemas Informáticos y de comunicaciones. Control y seguimiento del cumplimiento de los mismos.

f) La coordinación de las publicaciones técnicas de la Viceconsejería y la gestión del Boletín de la Ertzaintza.

g) La elaboración de estadísticas sobre actividades e información policial, incluida la definición de datos, los criterios de organización del proceso de recogida de los mismos, su análisis y prospección.

h) Artxibategien ezaugarriak, segurtasun-betebeharrak, ordenatzeko modua eta Segurtasun Sailordetzaren menpeko erroldak finkatzea, eta guzti horren kontrola. Segurtasun sailordetzari dagokio, halaber, Euskal Herriko Segurtasun Batzordearen hitzarmen eta hortik sortutako Batzordeen erabakiak eta agiriak artxibatu eta jarraipena egitea.

i) Segurtasun Pribatuaren arloko entitate, zerbitzu eta ihardueren ikuskapenaren eta kontrolaren antolaketa, eta baimendutako entrepresen errolda eta aipatutako arloan Segurtasun sailburuordeak erabakiko dituen ihardunbideen izapidetzea.

*15.– atala.–* Herritarren Segurtasuneko Zuzendaritza

Honako eginkizun hauek dagozkio Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritzari:

a) Euskal Autonomi Elkarteko herritarren segurtasuna hobetzeko neurri eta erabakiak prestatu eta Segurtasun sailburuordeari proposatzea.

b) Ertzaintzaren Lurralde Unitateen agintea, Polizia Buruzagitzen bidez; eta Ertzaintzaren Agintaritza eta Kontrol Zentruaren gaineko zuzeneko agintea Zuzendaritza honetako zuzendariari dagokio, horrez gain, Miñoien, Mikeleteen eta Foralen Unitate berezien goreneko zuzeneko agintaritza, eta Dekretu honen 9. atalean aurrikusitako SADAE Unitatearena.

c) Dekretu honen 11.4 atalean xedatutakoarekin bat etorriz, Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzak finkatzen dituen artezpide, azalpen eta helburuak betetzeko polizi-baliabideak erabiltzea, eta baita Miñoien, Foralen eta Mikeleteen ihardun eremuari dagokionez, dagozkien Foru Aldundietatik datozenena.

d) Segurtasun Sailordetzari atxikitako ertzain atalen egiturako langile-erroldeen egitasmoak, eta horien aldaketa eta ezabapena sailburuordeari proposatzea.

e) Ertzaintza era eraginkorrean zabalduta dagoen lurralde eremuan egiten diren bilera eta manifestazio ekubideen erabileran agintariei dagozkien aginpideak burutzea eta, oro har, kidego hori zabalduta dagoen lurralde eremuko mota horretako gertakizun garrantzizkoen aurrean herritarren segurtasuna babesteko beharrezko neurriak hartzea.

f) Herritarren Segurtasunarekin serikusia duten zigor-ihardunbideak erabakitzea, bereziki, 1.000.000 pezeta arteko isunak eta otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 29.1.d) atalean aipatutako gainontzeko zigorrak jartzea.

*16. atala.–* Ekintzetarako Baliabideen Zuzendaritza

Honako eginkizun hauek dagozkio Ekintzetarako Baliabideen Zuzendaritzari:

a) Sailburuordeari bere iharduera-eremuko zerbitzu publikoaren hobekuntzarako neurriak proposatzea.

b) Ekintza Taldeen, Talde Mugikorraren eta Indargabetze Talde Bereziaren eta Helekoptero-atalaren zuze-

h) La definición de las características, requisitos de seguridad y protocolos de ordenación de los archivos y registros dependientes de la Viceconsejería de Seguridad, así como el control de aplicación de todo ello. Asimismo, le corresponderá el archivo y seguimiento de la documentación y acuerdos de la Junta de Seguridad del País Vasco y de las Comisiones que de ella se deriven.

i) La Organización de la inspección y control de entidades, servicios y actuaciones relativas a materias de Seguridad Privada, así como del registro de Empresas Autorizadas y la tramitación de procedimientos sobre la materia, que resolverá el Viceconsejero de Seguridad.

*Artículo 15.–* Dirección de Seguridad Ciudadana.

Corresponde a la Dirección de Seguridad Ciudadana el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Elaborar y proponer al Viceconsejero de Seguridad medidas y dispositivos conducentes a la mejora de la seguridad ciudadana en el País Vasco.

b) El mando directo de las Unidades Territoriales de la Ertzaintza, a través de las Jefaturas de Policía, y de los Centros de Mando y Control de los Territorios Históricos. También ejercerá el mando jerárquico de las Secciones de Miñones, Mikeletes y Forales, así como el de la Unidad de SADAE en los términos previstos en el artículo 9 de este Decreto.

c) La instrumentación policial de las directrices, instrucciones y objetivos formulados por la Dirección de Tráfico y Parque Móvil de conformidad con lo previsto en el art. 11.4 del presente Decreto, así como las de las procedentes, en su caso, de las respectivas Diputaciones Forales en relación con los Miñones, Forales y Mikeletes.

d) Proponer al Viceconsejero de Seguridad los proyectos de plantillas orgánicas de las unidades policiales bajo su dependencia, así como su modificación o supresión.

e) Desempeñar las funciones que competen a la autoridad gubernativa en el ejercicio de los derechos de reunión y manifestación en el ámbito territorial de despliegue efectivo de la Ertzaintza y, en general, la adopción de las medidas necesarias para preservar la seguridad ciudadana ante acontecimientos relevantes para la misma, en el ámbito de despliegue territorial de dicho cuerpo.

f) Resolver los procedimientos de sanción administrativa en materias relacionadas con Seguridad Ciudadana y, en particular, imponer multas de hasta 1.000.00 de pesetas y las demás sanciones referidas en el artículo 29.1.d) de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero.

*Artículo 16.–* Dirección de Recursos Operativos.

Corresponde a la Dirección de Recursos Operativos el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Elaborar y proponer al Viceconsejero de Seguridad las medidas conducentes a la mejora del servicio público atribuido a su ámbito de actuación.

b) El mando directo de los Grupos Operacionales, Brigada Móvil, Unidad Especial de Desactivación y

neko agintaritza, eta duten egitekoa dela, Segurtasun Sailordetzako beste Zuzendaritza batera atxiki behar ez izanik, etorkizunean sortuko diren atalena.

c) Aurreko idazatian aipatutako atalek bete beharreko ertzain zerbitzuaren egiterapena koordinatzea.

d) Zuzendaritzari atxikitako Ertzain Unitateen egiturako langile-errolden egitasmoak, eta horien aldaketa edo ezabapena, sailburuordeari proposatzea.

e) Aurrekoekin zerikusia duten neurrian, legozkiokeen guztiak.

*17. atala*.– Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Zuzendaritza.

Honako eginkizun hauek dagozkio Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Zuzendaritzari:

a) Krimen Gaietarako Ertzaintzaren alorrean bere eskumenekoak diren politikak landu eta Segurtasun sailburuordeari proposatzea.

b) Krimen gaietarako Polizia Buruzagitzan integratutako Unitateen zuzeneko agintaritza, eta Joko eta Ikuskizun Unitateko gaineko zuzeneko agintaritza, Dekretu honen 10. atalean aurrikusten den eran.

c) Auzi-Polizia eta Krimen Ikerketaren inguruko eginkizunetan Ertzaintzako Zuzendaritzetan burututako lanak koordinatzea.

d)Polizia judizialaren arduradun denez, Ministerio Fiskala eta Agintaritza Judizialarekiko harremanak izatea.

e) Joko eta Ikuskizun alorretako politikak, izaera penaleko arazoen inguruan, egiteratzea.

f) Krimen-gaiei buruzko informazioari dagokionean beste Segurtasun Kidego batzuekiko koordinazioa bideratzea.

g) Zuzendaritzari atxikitako Ertzain Atalen egiturako lanari-erroldearen egitasmoak, eta horien ezabapena edo aldaketa, sailburuordeari proposatzea.

*18. atala*.– Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoaren Zuzendaritza.

1.– Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoaren Zuzendaritza kidego horren ekonomi eta aurrekontuen eta Ertzaintzako langileen eta laguntzarako zerbitzuen kudeaketaren organo arduraduna da; horrez gain, polizia kidego horri dagozkion eginkizunak betetzeko beharrezko baliabideak eskuratu eta informatika eta tresneria sistema mota guztien eta azpiegitura fisikoen eskuratze eta kudeaketaz ere arduratuko da.

2.– Ertzaintzako funtzionarien administrazio kudeaketa eta Ertzaintzaren zerbitzu lagungarriei atxikitako lan-itunepeko langileen Buruzagitza ere Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoko Zuzendaritzari dagokio. Azken horiei dagokienez, Dekretu honen 6.2 atalean ezarritako eginkizunak burutuko ditu, Zerbitzu Zuzendaritzaren esku dagoen Saileko langileen politika orokorra koordinatu eta bultzatzearen kaltetan gabe.

Unidad de Helicópteros, así como el de aquellas unidades que sean objeto de futura creación, y que en razón de la índole de su cometido no deban ser adscritas a otra Dirección de la Viceconsejería de Seguridad.

c) Coordinar la prestación del servicio policial por parte de las unidades referidas en el apartado precedente.

d) Proponer al titular de la Viceconsejería los proyectos de plantillas orgánicas de las unidades policiales adscritas a la Dirección, así como su modificación o supresión.

e) Todas aquellas que, relacionadas con las anteriores le pudieran corresponder.

*Artículo 17*.– Dirección de Policía de lo Criminal.

Corresponde a la Dirección de Policía de lo Criminal:

a) Elaborar y proponer al Viceconsejero de Seguridad las políticas que en materia de Policía Criminal sean de su competencia.

b) El mando directo de las Unidades integradas en la Jefatura de Policía de lo Criminal, así como el mando jerárquico de la Unidad de Juego y Espectáculos en los términos previstos en el artículo 10 de este Decreto.

c) Coordinar las labores realizadas en funciones de Policía Judicial y de Investigación Criminal en las Direcciones de la Ertzaintza.

d) Como responsable de Policía Judicial atender las relaciones con el Ministerio Fiscal y Autoridad Judicial.

e) Ejecutar las políticas sectoriales de Juego y Espectáculos, en lo referente a los asuntos de índole penal.

f) Canalizar toda la coordinación con otros Cuerpos de Seguridad en materia de información criminal

g) Proponer al Viceconsejero de Seguridad los proyectos de plantillas orgánicas de las unidades policiales bajo su dependencia, así como su supresión o modificación.

*Artículo 18*.– Dirección de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía.

1.– La Dirección de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía es el órgano responsable de la gestión de personal de la Ertzaintza y sus servicios auxiliares, de la gestión económico-presupuestaria de dicho cuerpo, así como del aprovisionamiento de medios, dotación y gestión de infraestructuras físicas y de todo tipo de sistemas Informáticos e instrumentales necesarios para el cumplimiento de las funciones que incumben al citado cuerpo de Policía.

2.– Corresponde a la Dirección de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía, la gestión administrativa del personal funcionario de la Ertzaintza así como la Jefatura del personal adscrito a los Servicios Auxiliares de la Policía. Respecto a este último colectivo ejercerá las funciones contempladas en el artículo 6.2. del presente Decreto, sin perjuicio de la coordinación e impulso de la política general del personal del Departamento que corresponde a la Dirección de Servicios.

Era berean, eta Ertzaintzaren estatutu-araubidearen ezarpenari dagokionez, Zuzendaritza honi dagokio:

2.1.– Bateragarritasun espedienteen ebazpena, Ertzaintzako Zuzendariek txostena eman ondoren.

2.2.– Derrigorrezko eta gorputzezko ezinaren ondoriozko jubilazioak aldarrikatzea, arauz gara dadin prozedurari jarraituz.

2.3.– Lanpostuen behin-behineko atxikipenen izapideketa eta Segurtasun Sailordetzako Zuzendariek eskatutako zerbitzu eginkizunen izapideketa.

2.4.– Segurtasun Sailordetzako Zuzendariek emandako lizentzia eta baimenen izapideketa.

2.5.– Hirurtekoen ondorioetarako, Administrazioan aurrez egindako lanak kontuan hartzea.

3.– Ekonomia– eta aurrekontu– ihardunei buruz batetik, eta administrazio– eta ondare-kontratazioari burz bestetik, honako eginkizun hauek izango ditu Zuzendaritza honek bereziki:

a) Polizi-ihardunarekin zerikusia duten administrazio eta ondare kontratazio espedienteak izapidetzea, legeek horien aginpidea Herrizaingo Sailari izendatzen dioten heinean, eta aipatu xedearekin zerikusia izanik, beste Sail batzuetako organoen esku daudenen izapideketa bultzatzea.

b) Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoaren Zuzendaritzari dagokio Poliziaren aurrekontu egitarauaren kudeaketa eta jarraipena, horren inguruko aurrekontu eta kudeaketari buruzko agiriak izapidetuz; aurrekontu-aldaketak eta bestelako koordinazio-eginkizunak, eta 6. atalean Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitzen zaizkion ekonomi-kudeaketaren koordinazio, bultzatze eta jarraipena salbu.

4.– Bitartekoak eskuratzeari, eta azpiegiturez hornitze eta horien kudeaketari dagokionez, ondoko eginkizunak hauek izango ditu Zuzendaritza honek bereziki:

a) Herrizaingo Sailaren eskumeneko eraikinei dagokienez, obra-proiektuen ikuskapen-zerbitzu berezia , ikuskapen teknikoa, kalitate-kontrola eta egiaztagirien jarraipena Zuzendaritza honek egingo du; baita eraikinak eta bertako instalazioen mantenimendua ere.

b) Segurtasun sailburuordearen Kabinetearekin batera Segurtasun-ihardueraрако informatika-plan eta -programak prestatzea eta horien ondorioz sortutako zerbitzu informatikoak eskaintzea.

c) Segurtasunerako Komunikazio-Sare Ofiziala eta gisa hontako tresneria eta sistemak planifikatu, diseinatu, kudeatu, eta mantentzea, herri-segurtasunerako iharduera errezteko; horrela, larrialdiei aurre egitea herri-segurtasuneko ihardueratzat jotzen da.

Igualmente, y respecto de la aplicación del régimen estatutario de la Ertzaintza, corresponde a esta Dirección:

2.1.– Resolver los expedientes de compatibilidad previo informe de los Directores policiales correspondientes.

2.2.– Declarar las jubilaciones forzosas y por incapacidad, conforme al procedimiento que reglamentariamente se desarrolle.

2.3.– Tramitar la adscripción provisional de puestos de trabajo y tramitar comisiones de servicio solicitadas por los Directores de la Viceconsejería de Seguridad.

2.4.– Tramitar licencias y permisos autorizados por los Directores de la Viceconsejería de Seguridad.

2.5.– Reconocer, a efectos de trienios, los servicios previos prestados en la Administración.

3.– En relación con las actuaciones económico-presupuestarias y con la contratación administrativa y de patrimonio, corresponderá a esta Dirección:

a) Tramitar los expedientes de contratación administrativa y de patrimonio cuyo objeto esté relacionado con el ejercicio de la actividad policial y cuya competencia esté asignada por el ordenamiento jurídico al Departamento de Interior, e impulsar la tramitación de aquellos que, relacionados con el objeto antes descrito, sean de competencia de órganos de otros Departamentos.

b) Corresponde a la Dirección de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía, la gestión y seguimiento del programa presupuestario de la Policía, tramitando los documentos de gestión referidos al mismo, excepto las modificaciones presupuestarias y demás funciones de coordinación, impulso y seguimiento de la gestión económica que se atribuyen a la Dirección de Servicios en el artículo 6.

4.– En cuanto al aprovisionamiento de medios y dotación y gestión de infraestructuras corresponderá en particular a esta Dirección:

a) Con respecto a los edificios dependientes del Departamento de Interior, actuar como servicio específico de supervisión de los proyectos de obra, inspección técnica, control de calidad y seguimiento de certificaciones, así como el mantenimiento de tales edificios y sus instalaciones.

b) La elaboración de los planes y programas de informatización destinados a actividades de seguridad, en coordinación con la Dirección del Gabinete del Viceconsejero de Seguridad, así como la prestación de los servicios informáticos derivados de los mismos.

c) La planificación, diseño, gestión y mantenimiento, de la Red Oficial de Comunicaciones de Seguridad y demás instrumentos y sistemas de esta índole destinados al desenvolvimiento de las actividades de seguridad pública. A estos efectos se entenderá que la atención de las emergencias forma parte de las actividades de seguridad pública.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

*Lehenengoa*.– Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen xedapen gehigarrietatik hamargarrenean ezarritako ondorioetarako, Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoko lanpostutzat joko dira Ertzaintzaren zerbitzu lagungarriei atxikitakoak.

*Bigarrena*.– sailburuorde edo Zuzendari lanpostuak hutsik daudenean, eta horiek betetzen dituztenak kanpoan edo gaixorik daudenean, honako arau hauei jarraituko zaie ordezkotzak egiteko:

a) Sailburuordeei izendatzen zaizkien aginpidea eta eginkizunak horien menpe dauden Zuzendarien esku geldituko dira, Dekretu honetan azaltzen diren hurrenkeran.

b) Zuzendariei izendatzen zaizkien aginpidea eta eginkizunak bakoitzari dagokion sailburuordearen esku gelditzen dira.

Sailburuaren menpe zuzenean dauden Zuzendarien ordezkotza hark kasu bakoitzerako erabakitzen duenaren arabera egingo da.

*Hirugarrena*.– Lurralde Zerbitzuetan lanpostuak hutsik daudenean, edo horiek betetzen dituztenak kanpoan edo gaixorik badaude menpe dauden Zuzendaritzako titularraren esku geldituko da kasuan-kasuko ordezkoak jartzea.

*Laugarrena*.– Herrizaingo sailburuaren Aginduz, Ertzaintzaren eginkizunen eraginkortasunarekin zerikusi zuzena izanik, Segurtasun sailburuordearen menpe dauden organo eta atalen lan edo zerbitzu-emate zentrua Vitoria-Gasteizko udalerritik kanpo kokatuko dela erabaki daiteke, inguruko organoak ez izan arren.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabe gelditzen dira uztailaren 27ko 217/1993 Dekretua eta Dekretu hontan ezarritakoaren aurka egin dezaten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko maiatzaren 14an.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo sailburua,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera*.– A los efectos de lo establecido en la disposición adicional décima de la ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se considerarán puestos de trabajo de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía los adscritos a los servicios auxiliares de la Ertzaintza.

*Segunda*.– En los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad de los Viceconsejeros o Directores, se seguirán las siguientes reglas de suplencia:

a) Las competencias y funciones atribuidas a los Viceconsejeros serán ejercidas por los Directores de ellos dependientes por el orden en que aparezcan en el presente Decreto.

b) Las competencias y funciones atribuidas a los Directores serán ejercidas por los Viceconsejeros respectivos o por el Director que estos designen al efecto.

La suplencia de los Directores que dependan directamente del Consejero se realizará conforme éste determine para cada supuesto.

*Tercera*.– Para los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad en los Servicios Territoriales, el titular de las Direcciones de las que dependan podrá dictar el régimen de suplencias que considere oportuno en cada caso.

*Cuarta*.– Mediante Orden del Consejero de Interior podrá determinarse que el centro de trabajo o de prestación de servicios de órganos y unidades dependientes de la Viceconsejería de Seguridad y directamente vinculados a la operatividad de las funciones de la Ertzaintza, radique fuera del término municipal de Vitoria-Gasteiz, aun cuando se traten de órganos no calificados como periféricos.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 217/1993, de 27 de julio y cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 14 de mayo de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.